

BERRIGARA

82. zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1997, irailak 26

Errekaren bideratzea

San Antonioko etxeak botako dira

MARKIEGI
autoak

Leizeaga, 1
(San Lorentzo Industri Poligonoa)
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefona: 76 35 09



BERGARAKO osasun gida

■ ALBAITARIAK:

- ARATZ KLINIKA (ROMAN LAZPIUR). Mobilak: 907 48 71 19
- ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK)
- ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAIKO ALBAITARI OFIZIALA)
- IRASTORZA BENGUA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK)
- NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobilak: 908 87 68 47

Zurradero, 6 behea
Mobilak: 908 77 17 32
Mobilak: 908 77 17 32
Iribar baseria ANTZUOLA
Koldo Eleizalde, 28

☎ 76 70 67
☎ 76 43 29
☎ 76 43 29
☎ 76 63 46
☎ 76 27 97

■ ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA ISABEL

Oxirondo 4, 1. B

☎ 76 32 06

■ BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN VICTOR

Oxirondo 4, 1. B

☎ 76 32 06

■ DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL
- BERGARA HAGIN KLINIKA
- GOROSABEL J. ALBERTO
- IRIARTE IDOIA
- GIPIZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.

Iparragirre, 1 behea
Bidekurutzeta 6, 2
Fraiskozuri, 5 behea
Artekale 1, 1. C
S. Arrieta 3, 2. B

☎ 76 27 95
☎ 76 05 77
☎ 76 56 88
☎ 76 01 65
☎ 76 38 54

■ DERMATOLOGOA:

- GARCIANDIA CRISTINA

Ramon Maria Lili, 2

☎ 76 59 39

■ FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL)

Artekalea 1, 1H

☎ 76 43 71

■ GINEKOLOGOA:

- SERRANO DOKTOREA

Ramon Maria Lili, 2

☎ 76 59 39

■ MASAILARIAK:

- AGIRREZABAL JOSE JABIER
- AZPEITIA IRUNE
- CASANELLAS JABIER
- PAYROS AITZIBER
- ETXEBERRIA ANA

Boni Laskurain 1, 2. A
Agorrosingo igerilekuak
Boni Laskurain 5, 2. E
Bidekurutzeta, 46 behea
Errekalde, 6 behea, ANTZUOLA

☎ 76 15 74
☎ 76 20 51
☎ 76 03 78
☎ 76 52 62
☎ 76 60 13

■ MEDIKUNTZA ESTETIKOA:

- BENITO ISABEL

Bidekurutzeta 46, behea

☎ 76 52 62

■ MEDIKUNTZA OROKORRA:

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA

Boni Laskurain 2, behea

☎ 76 20 50

■ PEDAGOGOAK:

- IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA)

Simon Arrieta 3, 2. E

☎ 76 26 42

■ PODOLOGOAK:

- ALTUBE EDURNE
- AZPIAZU ARANTZAZU

Simon Arrieta, 2
Herri Lagunak, z/g.

☎ 76 07 84
☎ 76 41 32

■ PSIKIATRA:

- GALLASTEGI PABLO

San Martin Plaza 2, 1. ezkerre

☎ 76 26 64

■ PSIKOLOGOAK:

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA)
- URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA)
- ZUBILLAGA ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA)

☎ 76 14 80
☎ 76 53 13
☎ 76 30 76

■ REUMATOLOGIA:

- MORAGUES CARMEN

Ramon Maria Lili, 2

☎ 76 59 39

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
0570 Bergara
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarte.

Zuzendaria:

Agustín Azkarate

Redakzioa:

Agustín Mendibil

Agustín Elkorobereizbar

Laketazioa:

Agustín Iturbe

Publizitatea:

Agustín Romero

Argipidetzak:

Agustín Elortza

Bestuen zuzenketak:

Agustín Plazaola

Agustín Laskurain

Agustín Labaien

Redakzio kontseilua:

Agustín Elortza

Agustín Angel Elkorobereizbar

Agustín Labaien

Emilia:

Agustín Rodríguez

Agustín Ortega & Jon Alvarez

Agustín Ugaldé

Agustín Azkarate

Anaketa:

Agustín Xangorri taldea

Irada:

Agustín ale.

Primategia:

Agustín Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Egite gordailua:

Agustín 1991

ISBN:

84-6599

BERRIGARA ez du bere gain

erabiltzeko aldizkarian adierazitako

erabiltzeko eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Bizkaiko Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jauriaritzaren Kultura
sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?


FERNANDO ETXEBERRIA

UNEDeko idazkaria

- Noiz hasiko duzue ikasturte berria? Zenbat ikasle matrikulatu dira?

- Ikasturte berria urriaren 18an hasiko da eta, beraz, matrikula epea oraindik zabalik dago. Madrileko zentruak 25 urte betetzen dituzte, aurtengo ikasturtearen hasiera ofiziala egingo dugu. Bestalde, 1.500 ikasle inguru matrikulatuko da, iazko kopuru antzekoa. Joera jeistekoa da, baina sekula baino jende gazteagoa hurbiltzen ari da; batetik, unibertsitatearen plangintza berriarekin nahiko nahaste dagoelako eta, bestetik, letretako karrerak jendeak nahiago dituelako bere aldetik ikasi.

- Zeintzuk dira karrerara arrakastatsuenak? Nobedaderik?



- Zuzenbidea, Psikologia, Enpresaritzeta eta Ekonomia dira arrakastatsuenak bai hemen eta baita Estatuko UNEDeko zentru guztietan (guztira 180.000 ikasle daude). Arrakasta gutxien dutenak, berriz, Fisika, Kimika eta Matematikak. Bi lizentziatura jarriko dira martxan aurtengo ikasturtean: Ekonomiako eta Enpresaren Administrazioa eta Zuzendaritzakoa.

“Aurtengo ekonomia eta enpresei buruzko bi lizentziatura berri jarriko ditugu martxan”

I T U R R I O N E T I K

Azaroan jokatu daiteke Gorrako Kotxe Igoera

Bergara Racing Taldeak Gorrako Kotxe Igoera berreskuratzeko lanetan darrai. Azaroaren azkeneko Gorrako Kotxe Igoeraren edizio berri bat antolatzeko asmotan dabilte eta baliteke datorren asteko erabakitzea proba egingo den ala ez. Jokatzekotan, Euskadiko Txapelketaren barruan izango litzateke eta 15 bat paratidek hartuko luke parte. Badirudi proba hori Jaizkibelen jokatzeko aukera ere badagoela. Gorrako Igoeraren azken edizioa 1993ko irailean jokatu zen eta orduan Espainiako Txapelketarako baliogarria izan zen. Orduetik ez da beste kotxe lasterketarik jokatu Bergaran.

E S A N
D U T E

“Aurtengo lehen aldia zen San Martinetako tanborradan parte hartzen nuena. Urdinen konpainiak gonbidatu ninduen eta baietza eman nien aurretik ere Zestoako esperientzia ezagutzen nuelako. San Martin oso jai ederra da, santuaren jatorriaren inguruko eztabaida alde batera lagata, ospatzen jarraitzen delako. Datorren urtean ere tanborradan jotzera bueltatuko naiz”

XABIER ZUBIZARRETA
Santa Marinako parrokoa
EL DIARIO VASCO

“Egia da hau dena arraro samarra izan dela. Bi fibra haustura izan ditut, baina ez da normala horrenbesteko mina izatea. Giharretan ez neukan indarrik eta horrela ezin nuen normaltasunez entrenatu. Oso gaizki pasatu dut. Guztiz osatzen naizenean ea entrenatzaileak zer erabakitzen duen”

AGUSTIN ARANZABAL
Realeko jokalaria
EL DIARIO VASCO



EL MUNDO PERDIDO

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.
Martitzena: 19:30
(Ikuslearen eguna).

▼▼ Oiartzungo Goruzaleak

taldeak harigintzari buruz prestatutako erakusketa zabalik izango da Udaletxeko Pleno aretoan eguastenera arte, astebarruan 18:00etatik 20:30etara eta larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara. Bihar eta etzi bisita gidatua egiteko aukera izango da arratsaldeko 19:00etan.



▼▼ **Bingen De Pedro** margolariaren erakusketa ikus daiteke irailaren azkenera arte Masterrekako Nahikari tabernan. Oraingo honetan pintura espresionista estiloko lanak (16 koadro guztira) aurkezten dizkigu De Pedrok, gehienak formato txikian egindakoak eta jendeari gai ezberdinak pentsarazten dizkienak.

Zinea

▼▼ **Steven Spielberg** zuzendari ospetsuaren ia filme guztiekin gertatu izan den moduan, azken honek ere izugarriko arrakasta lortu du takilan estreinatu zenetik. *Parque jurasico* filmearen arrakasta aprobetxatuz, dinosaurioak ditugu berriz protagonista nagusiak, **Spielbergen** filmeetako efektu berezi bikainei esker. **Jeff Goldblum** (*La mosca*) eta **Julianne Moore** (*Vidas cruzadas*) aktoreekin.

Deiak

▼ **Mendi-irteera** beteranoeztzat domekan Markina-Amorotoko Irteera 07:30etan Beheko Estazioan Izen-ematea Pol-Polen.

▼ **1961**ean jaiotako bergararren bazkaria urriaren 4an. Izen-ematea Nahikarin eta Dixulan.

▼ **Kontzertua.** Pol-Pol tabernaren 15. urteurrena ospatzeko *Kalariak* eta *Txatunga* bertako taldeak domekan 7etatik aurrera.

▼ **Kilometroak.** Urriaren 28an Pasaia-Lezora joateko autobus txartelak (900 pezeta) Aranzakastolan eta Jardunen.

▼ **EAJK** domekan (hilak 28) Gasteizko Salburuako zelaietan ospatuko duen Alderdi Eguna joateko autobus txartelak Batzarrikiko tabernan. Irteera 09:00etan.

Ogia

▼ **Domeka 28:** Konde.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 26:** Estella.
- ▼ **Zapatua 27:** Mozos.
- ▼ **Domeka 28:** Mozos.
- ▼ **Astelehena 29:** Camacho.
- ▼ **Martitzena 30:** Puy.
- ▼ **Eguaztena 1:** Guallar.
- ▼ **Eguena 2:** Estella.

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA

San Migel jaiak

Ekitaldi ugari asteburuan Angiozarko jaietan

San Migelen omenezko jaiak ospatuko dira astebukaera honetan Angiozarren. Bertako jai batzordeak programa erakargarria osatu du aurten ere. Bihar zapatua, 12:00etan, kanpai jotze eta etxaleroen jaurtiketarekin emango zaie hasiera jaii. Arratsaldean, 15:30etan plater tiraketa lehiaketa egingo da kanposantuaren ondoan.

Iazko edizioan 20 bat partaide izan ziren eta aurten ere onenentzat sari bikainak egongo dira. Jarraian, 18:30etan, mus txapelketa jokatu da Pagomendi elkartearen. Izen ematea ordu erdi lehenago egin behar da elkartearen bertan. Gauean, berriz, sardina jana iragarri da Plazan 21:30etarako eta gaueko 23:30etatik aurrera dantzaldia izango da La Parranda taldearekin. La Parrandak bere ohizko mexikanadak eskeiniko ditu zapatuan. Talde beragarrik hainbat emanaldi egin ditu aurtengo udan



La Parrandak zapatuko dantzaldia alaituko du.

plazarik plaza Euskal Herrian zehar. Egunari bukatuta emateko, goizaldeko 04:30etan ohizko txokolatada banatuko da Pagomendi elkartearen.

Domekan, berriz, goizeko 11:00etan Meza Nagusia izango da San Migel parrokian eta ondoren, 12:00etan, Udal Musika Bandak kontzertua eman-

Domekan, meza ostean, Udal Musika Bandaren kontzertua izango da

go du parrokian bertan. Auzoetan urtean behin bandak ematen duen kontzertua Angiozarri tokatzen zitzaion aurten.

Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, bandak, besteak beste, J.V. der Roost, Mendelssohn, Hadermann eta Jose Franco konpositoreen piezak joko ditu. Arratsaldean, 16:30etatik aurrera, herri kiroleko probak jokatu dira eta egun guztian zehar trikitaliak arituko dira Angiozarreko txoko guztiak alaitzen.

Bukatzeke, astelehenetan, San Migel egunean, eguerdiko 12:00etan meza izango da eta jarraian jubilatuen abesbatzaren emanaldia. Ondoren luntxa emango da eta arratsaldean, 17:00etatik aurrera, umeentzako jolasak eta txokolatada.

Azkenik, 21:00etan, ohizko San Migelen zeruratzea egingo da, jaii amaiera emanez.



The Dictators talde iparamerikarrak kontzertua emango du gaur Bergarako Jam aretoan. Euren azken single-ean "Nork salbatuko du rock & rolla?" galdera planteatzen dute eta dudarik ez dago rockero historiko hauek prest ditugula lan horretan murgiltzeko. 1970eko hamarkadan sortutako talde honek disko bikainak kaleratu ditu ("Go girl crazy", "Manifest destiny", "Bloodbrothers") eta zuzeneko emanaldietan oraindik ere energiaz beterik azaltzen zaizkigu. Hirugarren urtez jarraian jira bat egingo dute Estatuan zehar eta gaur Bergaran joko dute, Bonzos taldearen laguntzarekin. Kontzertua 22:30etan hasiko da eta sarrerak 1.300 eta 1.500 pezetan (takilan) jarriko dira salgai. Bestalde, bihar zapatua, 22:00etatik aurrera Bad-F-Line eta Foscal taldeekin kontzertua egongo da Jam aretoan bertan. Sarrera debaldekoa izango da bihar.

Zorionak

Zorionak Udal Kirol Zerbitzuari azken bi asteotako eguraldi zoragarriekin kanpoko piszina itxita izateagatik.

M.G.E.

NAN:15.384.298

Azokako obrak

Honen bidez, Bergarako azokako saltzaileok bertako obrak direla eta, Udalak gurekin duen jarrerara eskasa eta bezeroekiko kontsiderazio falta salatu nahi ditugu. Hasteko, abuztuaren 18ra arte ez zen obrarik hasi, aurretiko egun lasai askoren aukera galduz. Egundorretan, goizez, erosle guztiak bertan zirela eta gurekin ezertarako kontatu gabe, erdiko solairua estaltzeko obrak hasi ziren: izugarritzko zaratak eta gu erosleekin ere ezin elkar ulertu. Zaratak gutxituko zirelakoan, hurrengo egunean ere aguantatu genuen, baina hirugarrenean ere jasan ezindako zaratarekin segitzen genuenez, Udaletxera deitu genuen, obrak postuak itxita zeudenean (gazez, aste bukaeran..., beste leku batzuetan, halakoetan, egiten den bezala) egin zitezten. Erantzuna, alkatea ez zegoela. Eta horrela segitu genuen aste guztian zehar, burua lehertu beharrean eta erosleekin konpondu ezinean.

Abuztuko azken astean, zarata gutxitzen hasi zenean, sekulako hautsa ateratzen hasi ziren. Gu, haustutako janariok saldu ezinda eta Udaleko ordezkarien baten bisitaren zain. Baina, inoren azalpenik ez, ez alkatearenik, ez azokako ordezkari batenik ere. Obrak bertan behera lagata irailleko lehen astea pasa eta gero, bigarren astean berriz etorri direnean, atzera ere zarata eta hautsa aguantatu ezindako modukoa. San Martin eguna, jai izanda, postuak itxita egon arren, ez dute lanik egin. Eta hurrengo egunetik, berdin, hauts eta za-

rata guztiokin. Ostegunean, irailaren 18an, ikusirik erosleen aldetik kexa izugarri dagoela, berriz ere Udaletxera deitu genuen, 3 aldiz, eta hiruretan erantzun berdina: ez alkatea ez azokako arduradunik ez zegoela eta norbait etortzen zenean esango ziotela. Gaur arte. Zer egin pentsatu ezinda, desesperatuta. Sanidade Departamentura ere deitu genuen: handik, berriz, Udaletxera bidali gintuzten, honen ardura dela eta. Baina, berriz ere Udaletxera deitu arren, ez dugu lortu alkatearekin egoterik.

Gure zergak zintzo ordaindu eta zerbitzu bat ematen dugun herritar bezala, azalpentxo bat ere ez ote genuen merezi? Ahalik eta txukunen saldu eta Bergarako azokari eusten saiatzen garenek, ez ote genuen errespeto gehixeago merezi? Gure erosleak diren herritarrek ez ote zuten kontsiderazio pixkat merezi? Badakigu obrak direnean zarata eta hautsa ateratzen dela. Baina gure Udalarik, beste aukera guztiak baztertuz, etxean bertan beste supermerkatu bat, konpetentzia gehiago sartzea, kalte gutxi irudituko balitzaz bezala, esfortzu handiz lortutako klientela ere galtzeko laguntza ederra ematen ari zaigu. Eta orain, idatzi hau bialdu beste aukerarik ez zaigu gelditzen, azokara etortzen den jendeak animatuta. Azokari egin zaion kalteaz pentsatu eta aurrerantzean jarrerara aldatu eta, behingoz, bere alde zerbait egiteko balioko duelakoan.

BERGARAKO AZOKAKO SALTZAILEAK

Herriak ez du barkatuko

Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokan bere bizitza galdu dute beste bi gudari gaztek. Gaizka eta Jesus Mari, betidanik zapalkuntzaren estrategia prepotentea jarraitu duen estatu espainiar faxistodeari aurre egiteagatik akatu dituzte, bere burua (?) demokratizatzen duen Oreja espainiar Barne Ministro basatiak, Miguel Angel

Blancoren exekuzioak eskatzen zion odol trukea asetu duen bitartean.

Orejarekin bat eginez herri honentzako gurek eta gorrotoa besterik ez duten odol xurgatzaile guztientzat, hiru hitz: Gora Euskadi Askatuta!

Gaizka, Jesus Mari eta beraiek bezala askatasunaren bila eroritako euskaldun guztiei bera hiru: agur eta ohore!

Jesus Mari, Gaizka gogoan zaituztegu!

BERGARAKO AMNISTIAREN ALDEKO KOMITETIA

EPA zentrua

EPA-ko ikasle batzuk gara eta idatzi honen bitartez EPAko klaseak euskaraz ere eman behar liratekeelakoan gaude. Euskal Herrian gauden euskarari lehentasuna eman beharko litzateke. Gainera gure bizitza osoa euskaraz bizi izan behar gunontzat klaseak gazteleraz ematea zalantza bat besterik ez da. Beraz, eskatzen dugu klaseak euskaraz ere ematea. Besterik gabe, gure eskatutako kontutan hartuko delakoan agurtzen gara.

EPAKO IKASLE BATZUK


NAN:72.582.752 ETA BI SINADURA GEHIAGO

Eskertza

Alfonso Larrañaga eta Vidal Kareaga zirenekin omenez joan zen irailaren 14an Elosun egunaren meza eta ondorengo luntxa antolatatu zutenean bertan izan ziren guztiei, bereziki kuadrilako Alai taldeari, eskerrak eman nahi dizkiegu adierazteko elkartasunagatik.

MILAGROS AGIRREZABAL ETA IZASKUN BARRENA, ALFONSO ETA VIDALEN ALARGUNA

Tiira biraka



Anoetan Realak ikusteko autobusak

Realak Anoetan jokatuko dituen partiduak ikustera joateko autobusak antolatuko dira aurten ere. Zapatu honetan Realak Valladoliden aurka jokatuko du 20:00etan eta partidua ikusi nahi dutenentzat autobusa izango da 18:30etan Antxoni aurrean.

Merkatarientzat klaseak

Merkatarientzako klaseak antolatzen direla esanaz idazkia jaso eta, ondoren, telefono deirik jaso ez duten dendari, langile edota profesionalak, astelehen honetan, hilak 29, deitu dezakete Udaleko Euskara Batzordera (77 91 66). Ikastaroari buruzko xehetasun guztiak argituko zaizkie.

Deskarga erreka bideratzeko hitzarmena sinatu dute

Antzuolatik datorren Deskarga edo Uhola erreka Deba ibaiarekin bat egiten duen tartean erreka bideratzeko hitzarmena sinatu zuten eguenean Udaletxean Jose Antonio Maturana Garraio eta Herrilan sailburuak eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak.

Inguru horretan izan diren uholdeak etorkizunean ekiditu nahi dira. Horretarako, ia 263 milioi pezeta bideratuko dira. Eusko Jaurlaritzak % 75 ordainduko du eta Gipuzkoako Diputazioak %25. Lanen adjudikazioa urtea amaitu baino lehen egingo da eta obrak bederatzi hilabeteren buruan bukatuta egotea espero da. Beraz, datorren urte bukaerarako edo lanak amaituta egongo dira.

Lanak egin ahal izateko San Antonioko bidegurutzeko etxe batzuk bota egingo dira: San Migel kaleko 1, 3 -dagoeneko botata dagoena-eta 5 zenbakiak eta La Parrako etxea eta San Antonioko ermita dira botako diren eraikuntzak. Udalak, baina, botako diren etxeen jabeekin espropiazio negoziazioak burutu beharko ditu aurretik.

Eusko Jaurlaritzaren eta Bergarako Udalaren arteko hitzarmena sinatzeko eki-



San Antonioko ermita bota egingo da.

taldian, obraren garrantzia azpimarratu zuen Jose Antonio Maturana Garraio eta Herrilan sailburuak. *“Deskarga errekek tarte horretan herritarrei sortarazi dizkien arazoak ekiditze-ko eta etorkizunean berriz ere uholderik izan ez dadin oso garrantzitsua da proiektua. Bestaldea, aurrerantzean, Deba ibaiak arazoak sortzen dituen Bergarako beste toki batzuetan ere konponbideak bultzatuko dira”* esan zuen.

470 metroko zatia

San Antonion sarritan egin du gainezka Deskarga erreka. Bereziki larriak izan ziren 1953ko

urriko, 1983ko abuztuko eta 1988ko uztaileko uholdeak. Obra honekin inguru horretan erreka gainditu behar dituen oztopoak (zubiak, etxeak...) kendu egingo dira eta erreka bideratuko da. Arregi aroztegia baino lehenago hasi eta erreka Deba ibaiarekin bat egiten duen zatiraino bideratuko da (470 metro). Toki batzuetan metro erdi inguru lur jango zaio errekarri, beste batzuetan erreka zabaldu egingo da eta ormak egingo dira; halere, aldaketa nagusiak bidegurutze inguruan izango dira, etxeak bota eta errekarren ubidean biurgune batzuk zuzendu egingo baitira.

HILDAKOAK

- Ignacia Ugarte Beitia
Irailak 19, 90 urte.
- Eulogia Agirrezabal Arizabaleta
Irailak 21, 87 urte.
- Miguel Idarreta Jauregi
Irailak 23, 75 urte.
- Juan Jose Gonzalez Imaz
Irailak 23, 45 urte.

JAIOTAKOAK

- Ainhoa Murgizu Laskurain
Irailak 22.
- Amaia Oregi Gallardo
Irailak 20.



**Matxiategi
Elektragintza
C.B.**

**ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA**

**Fleming Doktorea, 5
☎ 76 19 94**



Grafologia ikastaroa

Jardunek grafologia ikastaroa antolatu du urriaren 7tik azaroaren 11ra bitartean. Ikastaroa martitzenetan, 18:30etatik 20:30etara, emango da eta irakaslea Irune Ibarra izango da. Idazkeraren bidez zure nortasuna ezagutu nahi baduzu, izena eman dezakezu urriaren 3a baino lehen Jardunen (76 08 19) edo Gartzela Zaharrean (76 36 61). Prezioa: 4.500 pezeta Jarduneko bazkideentzat eta 5.000 bazkide ez direnentzat.

Gimnasia erritmikoa


Ariznoa gimnasia erritmiko taldeak datorren eguastenean hasiko du denboraldia. Kirol hau egiteko interesa duten 6 urtetik gorako neska guztiek 76 32 08 (Margari) edo 76 52 05 (Mertxe) telefonoetara deitu dezakete. Entrenamenduak martitzen eta eguenetan izaten dira 17:30etatik 19:00etara.

Vidal Kareagaren omenezko meza

Vidal Kareaga zenaren aldeko meza izango da domeka honetan 13:15etan Sierbetako elizan. Bere kuadrilakoek lagun eta ezagun guztiei gonbitea luzatu diete mezan parte hartzeko.

Xipizaro ludoteka

Hilaren 17an zabaldu zen Xipizaro ludotekaren ordutegia honako hau da: astelehenetik eguakitzera, 3 urtetik 9ra artekoentzat, 17:15etatik 18:30etara; 9 urtetik 14 urtera artekoentzat, 18:30etatik 19:30etara. Zapatuetan, bestalde, 10:00etatik 13:00era izango da zabalik guztientzat, hau da, 3 urtetik 14 urtera artekoentzat.



Kamioia erreaktik gertu geratu zen. Bertan zihozazenek zauri arinak izan zituzten.

Kamioi bat irauli eta erreka ertzean geratu zen Elorregin martitzenean

Tomas Larrañaga Etxeberria baserrikoa ia harrapatu zuen

Martitzen eguerdian istripu ikusgarria gertatu zen Elorregin. Bergarantz zetorren Mañariko Artetxe gruak enpresako kamioi-grua batek Elorregiko Alkartasuna elkartearen parean dagoen autobus markesina jo eta errepidearen eta errekaaren artean dauden ortuetara jausi zen. Istripua gertatu zen unean, Etxeberria baserriko Tomasa Askasibar ortua lantzen zegoen eta gutxiatik ez zuen kamioiak ez.

Kamioia, bide ertzeko hesiak aurrean eraman zituen eta autobus paradako kaseta jo ondoren, irauli egin zen eta erreka ertzean geratu. Bertan zihozazenek bi lagunek, 37 eta 31 urteko mañariarrak, zauri arinak izan zituzten. Istripua huts mekaniko baten eraginez gertatu zen.

Istripuaren lekuko izan zen Jua-

na Larrañaga Etxeberria baserrikoarekin berba egin dugu: "Tomate pararra batzuk sartzen ari nintzen ortuan eta zarata zalapartatsu bat entzun nuen; bat-batean, biltzaile bertzeko pretila aurrean zeraman kamioi bat nigana zetorrela ikusi nuen" diosku Tomasak suert haundia izan zuela aitortzen du bitartean. "Pretileko harri koskorrak eta hautsa jausi zitzaizkidan gainera, baina eskerrak antxintza egin nuela eta kamioia eskintza ertzera lortu nuela...". Kamioiak autobus paradako markesina jo zuen eta ortura jausi zen. "Kamioitik zetorren zarata batzuk entzun nituen eta laguntzera joan nintzen; baina bertan zihozazenek bi lagunak berre kabuz irten ziren kamioitik. Kamioia iluntzean erretiratu zuten."

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

Siaska

Dena zure
haurrgarantzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

San Martinen Estanpako bideoa nahi duten guztientzat salgai



San Martinen Estanpa ikuskizuneko bideoa enkargatuta zutenek eguenean zuten bideoa erosteko azken eguna. Halere, Musika Eskolatik jakinarazi dutenez, epea luzatu egin da eta astelehenera arte izango dute bideoa hartzeko aukera. Astelehenetik aurrera nahi duen edozeinek, nahiz eta aurretik enkargatuta ez izan, erosi ahal izango du bideoa. San Martinen Estanpako irudiak jasotzen duen bideoa 2.000 pezetan jarri da salgai.

Jubilatuen kultur hamabostaldiko egitaraua iragartzeko antolatu zen kartel lehiaketako irabazlea gaur aurkeztuko da arratsaldeko 07:30etan Kultur Etxean; Dani Laskurain kartel irabazlearen egilea bertan izango da. Bestalde, aurkeztutako kartelen eta jubilatuek landutako eskulanen erakusketa zabalduko da. Kultur hamabostaldia urriaren 7an hasiko da eta hainbat mahainguru eta hitzaldi antolatuko dira. Besteak beste, Jose Mari Pagola bikarioa, Luis Mari Bandres Gizartekintzako diputatua eta Imanol Sorondo apaiza izango dira.




Gida komertziala prestatzen

Berrigara Gida 98, Bergara eta Antzuolako gida komertziala prestatzen hasi gara dagoeneko. Aitziber Aretxaga (argazkian) arituko da komertzial lanetan eta dendari, ostalari, lantegi edota profesionalen telefonoak jasoko ditu. Bestalde, ohiko telefonoez gain, herriko partikularren telefonoak ere jasoko ditu Gabonetan kaleratuko dugun Berrigara Gida 98 liburuxkoak. Beraz, intereseko telefonoak, komertzialenak eta partikularrenak jasoko ditugu, hau da, Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak. Iazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahi baduzu, edota zure telefonoa edo helbidea oker jarri bagenuen, Berrigarara deitzeko eskatuko genizuke (76 03 97).

Federico Ansuategiren omenezko meza

Federico Ansuategi, Mariaren Lagundiko irakaslea izan zenaren aldeko meza izango da datorren eguastenean, urriak 1, arratsaldeko 18:00etan Mariaren Lagundiko elizan. Ondoren, bere oroimenezko ekitalditxo bat izango da. Federico Ansuategi Mozos abokatua zen eta Mariaren Lagundian eta Eskola Elementalean eman zituen klaseak. Uztailaren 6an hil zen.



Bedelkarreko txuletak

Bedelkarreko harakinek astero zozketatzen dituzten txuletak, 1.208 zenbakia duenarentzat izango dira aste honetan.

Asmaizu lehiaketa

Bergarako Akulu-AEK euskaltegiak Asmaizu lehiaketa antolatuko du datozen hiru asteetan. Jendea EGA titulua ateratzeko Akulu-AEK euskaltegian izena ematera animatzea da lehiaketaren helburua. EGako atari probako galdera bat jarriko da astero eta erantzuna asmatzen dutenen artean sariak zozketatuko dira. Galderak, erantzunak jartzeko txartelak eta hauek lagatzeko kutxak Antzuola, Elgeta, Osintxu, Angiozar eta Bergarako hainbat tabernatan jarriko dira.

Kizkur

ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79





Araudi berrian ostalaritza eta ikuskizun publikoko lokalen sailkapena egiten da, lokal bakoitzari dagokion ordutegia zehaztuz.

Gauean ohera?

Tabernen ordutegi berria

Joan zen irailaren 8tik indarrean dago Euskal Autonomi Elkartearen ostalaritza eta ikuskizun publikoen gaineko araudi berria. Taberna eta jatetxeen ordutegia murriztu egiten da aipatutako araudian eta horrek kezka piztu du ostalaritza arloan lanean ari direnen artean.

Joan zen ekainaren 17an onartutako 140/1997 dekretuan

Euskal Autonomi Elkarte-ko jendeaurreko ikuskizunak, jolas jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk zehazten dira. Dekretua uztailaren 8ko Euskal Herriko boletinean argitaratu zen eta irailaren 8tik dago indarrean.

Ostalaritzari dagokionez, dekretu honek ixteko ordutegia aurreratzea suposatu du eta honek administrazioa eta ostalaritza arloko langileen ar-

teko eztabaida ekarri du. Dekretuak, bere bigarren artikuluan, ostalaritza eta ikuskizun publikoko lokalen artean sailkapena egiten du eta kategoria bakoitzari dagokion ixteko ordutegia zehazten da. Lehendabiziko taldean, gaztetxoei zuzendutako alkoholik gabeko lokalak eta janariak emateko baimena dutenak (izozkidendak, txurreriak, kroasanteriak, etabar) leudeke eta hauek 22:30etan i-

txi beharko dute. Bigarren taldean, alkoholdun edariak eta janariak emateko baimena dutenak (tabernak, jatetxeak, erretegiak, kafetegiak, autozerbitzuak, elkarte gastronomikoak, sagardotegiak) sartuko lirateke eta hauei 00:30etan finkatzen zaie ixteko ordua. Hirugarren taldean, berriz dantzarako pista izan berririk, jarduera berezi gisa musika izateko baimena duten lokalak eta instala-

Araudi berriaren arabera, udalek ahalmena izango dute ordutegi bereziak baimentzeko herriko jaietan edo jaiegun berezietan

zioak (taberna bereziak, pub-ak, disko-barrak edota karaokeak) sartzen dira eta hauek 02:00ak arte dute ixteko baimena. Eta, azkenik, laugarren taldean, dantzarako pista eta guzti musika izateko eta ikuskizunak egiteko baimena dutenak (diskotekak, dantzalekuak, kafe-antzokiak edo ikuskizuna duten jatetxeak) daude. Azken hauek 04:00ak arte egon ahal izango dira zabalik.

Iritzi ezberdinak

Javier Gabilondo Gobernazio zinegotziaren arabera, *"lebengo araudiak butsune asko zituen eta lokalen batek arazo bat zuen bakoitzean nabikoa zitzaion baziendan lizentzia fiskala aldatzea. Orain ez da hori gertatuko. Udaleko irekiera lizentzia hartuko da kontutan lokal bakoitzaren kategoria zehazteko eta lokal bakoitzak bere kategoriari dagozkion baldintzak bete beharko ditu"*. Gabilondoren ustez, araudi berriak ez du aldaketa handirik ekarriko; "dekretua Barne Saila, EUDDEL udalen elkarte eta komertzianteen ordezkarien artean landu da eta ixteko ordua ordu erdi besterik ez da aurreratzeko. Orain arteko ordutegia batzuek betetzen zuten eta beste batzuek ez eta piskat horren kontrola hobetzeko landu da araudi berria. Kexarik jasotzen dugun? Inguruan lokalak dituztenak kexatzen dira, bai. Auzoetan

ez da zaratarik sentitzen, baina zentruan, denok dakigun lekuetan, bai. Udalak izango du kontrolaren kompetentzia eta Bergarako kasuan Udaltzaingoa eta Ertzaina izango dira ordutegia betetzeaz arduratuko direnak". Duela 15 egun Udalak Bergarako ostalaritza arloko jabeen araudia jakinarazteko konpromezua hartu bazuen ere, kontsultatutako tabernariak prentsarik bakarrik jasotakoa ezagutzen dutela adierazi digute.

Ostalaritza arloko langileak, esan bezala, nahiko kezkatuak daude gai honekin. Inazio Larrañaga Sirimiri jatetxeko arduradunak esaten digun moduan, *"Europara egokitzeke araudia izango da beharbada, baina ez*

dut ulertzen. Aste osoan betetzen dugu ordutegia eta astean behin (zapatuan normalean) beranduago ixteagatik ez dut uste ezer pasatzen denik. Batik bat gauzez lan egiten dugu eta ordutegia murrizten badigute...". Ariznoa tabernako Juan Etxabari ere iritzi berdinekoa da; *"ordu erdian aurreratzen digute ixteko ordutegia, baina kontua da ohiurak aldatzen doazela; jendea gero eta beranduago kaleratzen da eta askotan gaueko 12:00ak arte ez da ezer egoten. 12:00etatik 03:00ak bitarteko tarte hori besterik ez zaigu geratzen benetan ondo lan egiteko"*. Agustín Iñarra Zer-Nai tabernako jabearen usteetan, *"jendea lehen askoz lehenago irte-*

tzen zen. Ia aste osoan zehar ambientea egoten zen herria eta orain, berriz, oso makal dago. Araudia ikusita, jendea orain baino lehenago irten beharko da etxetik ambientea sortzeko...".

Ordutegi bereziak

Araudi berriaren arabera, udalek ahalmena izango dute ordutegi bereziak baimentzeko herriko jaietan, jaiegun berezietan edota arrazoi turistikoa kontutan hartuz. Horrela, lokal eta instalazioak ixteko ordutegia ondoko kasuetan haundituko da: ordubete ostiral, larunbat eta jaiegunetan; ordu erdi ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean eta, azkenik, bi ordu herriko jaietan, Aste Santuan (ostegunetik astelehenera arte), Aratuzteetan (ostegunetik asteartera) eta Gabonetan, abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra bitartean. Era berean,



Dekretu berriak tabernen ixteko ordutegia aurreratzea suposatuko du.

Udalak edo Jaurlaritzak interes turistikotzat jotzen dituen ekitaldiak izaten direnean (gehienez 10 egun urtean) ordutegia bi ordutan luzatuko da. Araudian jasotzen denez, behin-behineko instalakuntzei (txoznak esate baterako) instalakuntza iraunkorrenzat finkatutako erregimen bera aplikatuko zaie.

Bestalde, joku lokalak ondoko ordutegietan egon beharko dira itxita: jolas aretoak 22:30etan, joko aretoak 00:30etan, bingo aretoak 03:00etan eta jokorako kasinoak 04:00etan. Ordutegia luzatzen den kasuetan 18 urtetik gorakoek bakarrik izango dute bertara sartzeko eskubidea.

Araudiak beste hainbat aspektu ere jasotzen ditu. Esate baterako, lokalen kanpoaldean ezin izango dira edariak hartu gaueko 10:00etatik aurrera eta tabernariak galerazi egin beharko dute bezeroek lokaletik kontsumizioak ateratzea, kontrako kasuan zigorren bat jasotzeko arriskuarekin. Mariano Regorigok, Ganbara tabernakoak, nekez ikusten du horrelako gauzak betetzea; *"Zer jarriko dugu, tipo bat sarreran jendeari kanpora irtetzen ez lagatzeko? Jaietan eta udan, jendea kanpora irtetzen denean, oso nekeza da hori kontrolatzea. Niretzat inportanteena zera da: auzokideen ke-*

xarik ez izatea. Hori errespetatzen den bitartean ez dut uste ordutegien kontrola hain zehatza izan behar denik".

Isun gogorak


Bestalde, baimen administratiboa behar duten jendaurreko ikuskizun eta jolas jardueren hasiera eta amaiera orduak baimen erabakian zehaztuko direla jasotzen da. Dena den, jarduerak ezin izango dira amaitu 02:00ak baino beranduego. Araudiaren 9. artikulua arabera, jendau-

rreko ikuskizunak eta jolas jarduerak ezin izango dira hasi goizeko 06:00ak baino lehen. Lokalak itxi eta berriz zabaldu bitartean gutxienez 6 ordu igaro beharko dira eta musika, dantzarako pistak etabar, ezin izango dira martxan jarri goizeko 09:00ak baino lehen.

Jaurlaritzak hirigunetik kanpo edo errepedeetan dauden lokal edo instalazioak, aireportuetan edo autobus geltokietan daudenak edota ordutegi berezia justifikatzen duten jokorako jarduera eta zenbait ikuskizunen ka-

suan ordutegi bereziak ezartzeko ahalmena izango du. Azkenik, isun dagokienez, arau-haustearin gisa tipifikatutakoak 200 mila pezetarainoko isunarekin zigortu ahal izango dira. Urtebete baino lehenago hirugarren arau-hauste bat eginez gero, arau hauste larri gisa tipikatuko da eta honako zigorrak izan ditzake 200 mila eta bat pezetatik bost milioi pezetarainoko isuna, jarduera eten edo lokala itxi (gehienez urtebetean) edota jarduera hori egiteko sei hilabeteko inhabilitazioa.

Ordutegiaz gain, araudiak beste hainbat aspektu jasotzen ditu; lokalen kanpoaldean ezin izango dira edariak hartu gaueko 10etatik aurrera



Behin behineko instalakuntzei instalakuntza iraunkorrenzat finkatutako erregimena aplikatuko zaie.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55



**JUAN
ETXABARRI**

ARIZNOA TABERNAKOA

Ez dugu araudi berri hori ondo ezagutzen, prentsatik jaso duguna bakarrik baina badirudi kalte dexente egingo digula. Bergarako tabernariak ez gara elkartu oraindik baina Oñatin edo Donostian zerbait egin dute dagoeneko. Abisuren bat jaso bitartean lehen bezala jarraitzen ahaleginduko gara. Gaur egun alternea zapatu gauean konzentratzen da (ostirala asko jeitsi da) eta, horrez aparte, kirol emanaldien arazoa ere hor dago. Batzuetan asko nabaritzen da. Bestalde, jendea gero eta beranduago kaleratzen da eta ordu erdi kentzean lanerako ordutegia dexente mozten da.



**MARIANO
REGORIGO**

GANBARA TABERNAKOA

Beharbada ordutegiak errespetatzeko zerbait bidaliko dute, baina oraingoz ez digute abisatu ordutegi berria izango dugunik. Momentuz lehen bezala jarraitzen dugu. Ea zer gertatzen den... Ordu erdi kentzea? Ez da ez asko, ez gutxi, baina jendea ez dago ohituta goiz irtetzera eta taberna guztiak itxi arte ez doa diskoteketara. Futbola? Igartzen da, segun zein partidu dagoen. ETBrekin ez hainbeste baina Canal Plusekin bai. ETB taberna guztietan dago eta jendeak poteatzen duen bitartean ikusten du partidua. Canal Plus taberna batzuetan dago bakarrik edo bestela etxean ikusten du jendeak.



**INAZIO
LARRAÑAGA**

SIRIMIRI JATETXEKOA


Periodikoetatik bakarrik ezagutzen dut araudi berria. Ez dut ulertzen ostiral eta zapatuetan hain goiz iteko arrazoa. Ez dakit zer gertatuko den, baina momentuz orain arte bezala jarrituko dugu. Lan ordutegia murrizten badigute, uste dut horrek langileengan ere eragina izango duela eta ostalaritzako jende asko langabezian geratu daitekeela. Ez dakit gazteek ez edateko eta kotxe istripuak ebitatzeko egin duten, baina jendeak aurkituko ditu diskotekak zabalik edo bestela kalean edango du. Nire ustez, kirol emanaldien arazoa gehiago igartzen da hiritan hemen baino. Diskoteka zabaldu zutenetik jende gehiago dabil.



**AGUSTIN
IÑARRA**

ZER-NAI TABERNAKOA

A suntoa txarto ikusten dut. Araudiak ordu erdi lehenago ixtera behartzen gaitu eta guretzat hori asko da. Kontutan izan jendea gero eta beranduago irtetzen dela kalera. Lehen askoz ere lehenago kaleratzen ginen eta ia gauero jendea 03:00ak arte ibiltzen zen dantzan. Orain berriz... Ambienteak asko jeitsi da azkenaldian. Ez dakit zein izango den arrazoa, baina zerbait egin beharra dago, bestela jendea kanpora joaten hasiko da eta. Badirudi oraingo honetan gogor jarriko direla, baina ez dakit zer gertatuko den. Gobernutik datorren erabakia da eta isunak ere oso gogorrak izan daitezke.



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerreaka, 32 behea BERGARA. Telefonoa: 76 10 65, faxa: 76 11 40

Ekonomia

Euroaren eragina

- Noiz sartuko da indarrean euroa?

- Hor bi fetxa bereiztu behar dira: alde batetik, 1999tik aurrera (euroaren balioa finkatu eta gero), euroaren estatu kideen arteko eragiketa finantzarioak eurotan egin ahal izango dira; bestalde, 2002 urtera arte ez da euroa jendearengana helduko. Bilete eta txanpon ezberdinak kaleratuko dira eta euro bakoitza (165 pezeta) ehun *cent* edo zentabotan zatituko da. 2002.eko uztailearen 1etik aurrera oraingo pezetak ez du inolako balorerik izango. Baina aurretik, 1999tik 2002 urtera bitartean bezero batek kontu bat eurotan ireki nahi badi, aukera hori emango zaio aurrezki kutxa eta banku guztietan.

- Zeintzuk izango dira euroak ekarriko dituen aldaketa nabarmenak?


- 2002 urtera arte ez dugu inolako aldaketarik nabaritu gure eguneroko bizitzan. Euroa zirkulazioan jartzen denean, berriz, egokitze fase bat igaro beharko dugu mo-

neta berri horrekin guztiz ohitu arte. Dena den, abantailak nagusi dira; euroa oraingo pezeta baino moneta indartsuagoa izango da guretzat. Gaur egun Estatu Batuek eta Japonetik munduko edozein monetaren balioa fluktuatu dezakete eta euroarekin gure moneta dolarra edota yenaren parean jarriko da. Bidaiatzea, adibidez, askoz merkeago aterako zaigu

“Euroarekin abantailak nagusi dira; bidaiatzea adibidez merkeagoa izango da”



2002ko uztailetik aurrera oraingo pezetak ez du baliorik izango.



PEDRO ABARRATEGI
(Ekonomilaria)

eta euroa erabiltzen duten herrialdeetara joaten bagara, ez dugu dirua aldatu beharrik izango.

- Euroak alde txarrik badauka?

- Lehen esan dizuedan moduan, prezio berriak ikasi eta biribiltzea izango da oztoporik nagusiena. Hala ere, gobernuek,

kontsumitzaileen elkarrekin edota aurrezki kutxek jendeari beren laguntza eskeinitzeko diote egokitze epe horretan. Informazioa eurotan zein pezetatan jasotzeko aukera izango dute eta horrelan administratibo eta informatiko askoz handiagoa suposatuko digu guri.

- Inbertsioen balioa aldatu egingo da? Kontratuak berriz negoziatu beharko dira?

- Ez, ez da horrelakorik gertatuko. Euroaren sarrerak ez du inbertsioen balioa aldatzen eta kontratuek ere legez berdindin-jarraritu behar dira. Soldataren igoera ere txiki izango da.

- Eta zer egin beharko dute enpresek euroaren sarreraren aurrean?

- 1998ko udaberrian euroaren herrialde partaideak ezagutzen direnako (Espainiak baldintza guztiak beteko dituela espero da) moneta bakarrak ekarri ditzakeen ondorioak aztertu beharko dituzte eta sistema informatikoa ere egokitu egin beharko dira. Enpresa ertain eta txikiek 2002 urtera arte hemengo moneta erabili ahal izango dute, baina euroa erabiliko duten herrialdeen kasuan, salerosketak eurotan egin ahal izango dira 1999tik aurrera.

Industria hornikuntzak  Industriaren alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Cruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

 **zumelaga**
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!
San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21


kontuola...

Antzuolako hamabostekaria. 2 zenbakia, 1997-9-26

Etxea erosteko aukera gehiago

Lurrak birpartzelatu ondoren, etxebizitzak eskuratzea errezagoa

Udalak bukatu du dagoeneko lursailen banaketa eta udalaren lursailak leku batean batu ditu, etxebizitza berriak egiteko. Eskola osteko lurrak, Olaran ostekoak eta aparkamendutarako erabiltzen direnak lur eraikigarriak dira.



Sahiesbidea eta herriaren arteko hutsunean egingo dira etxebizitzak.

Udalak, birpartzelazio proiektuaren bidez, batu egin ditu sakabanatuta zeuzkan lurrak; eta horrela, udalaren lursailak eta esku pribatuetan geratuko direnak nondik nora zabalduko diren zehaztu dute.

Urtebete pasa da plana hasi zenetik eta orain, etxeak egiteko proiektu bideragarriena aurkitzen saiatuko da udala. Aurreikusita dauden 8 etxe blokeak eraikitzeko hiru aukera daude: batetik, babes ofizialeko etxebizitzak egitea, Eusko Jaurlaritzari lurrak eskeiniz; bestetik, udalak promotora batekin batera enpresa publiko bat sortzea; eta azkenik, lursailak promotora bati saltzea, baldintza batzuen pean. Hala ere, erabakia hartu aurretik, udalak herritarren beharrak ezagutu nahi ditu eta horretarako inkesta bat egiteko asmoa dauka.

txebizitza eskuragarriak egin nahi direla kontutan izanik, udalak proiekturik egokiena hautatu nahi du. Hori dela eta, zenbait esperientzia ezagutzen aritu dira egunotan. Oñatikoa izan da lehena; bertako udala promotora batekin elkar-

tu ostean, etxebizitzak eraiki dituzte. Zegamara ere joan dira, hangoek promotora bati saldu baitizkiote lursailak. Orain Zarautzera joateko asmotan da biltza, bertan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzekotan direlako. □

Beste esperientzia batzuk

Lursail horietan eraiki daitezkeen 100 etxebizitzetatik, udalak 40 eraikitzeko aukera izango luke. Hala ere, e-

Udalak bere lurretan 40 etxebizitza egiteko asmoa dauka

Euskal Herria kantuz ezagutzen

Herriko abesbatza Iparraldera abiatuko da urriaren 5ean. Ustaritzen, egun horretan, Lapurtarren Biltzarra ospatzen da; beraz, joaten direnek kabalgata ikusteko aukera izango dute. Sorozabalen omenez egin zuten kontzertuaren ondoren, eskursio bat egitekotan gelditu ziren parte hartu zuten 80 lagunak. Horregatik, hilaren 5ean autobusa hartuko dute eta kostaldetik Senperera iritsiko dira hamarretakoa egin ondoren Ustaritzera heltzeko bazkaltzeko orduan.

Konpontze lanak Gorkako bidean

Bideto konponketa lanak direla eta, Gorkako Altsasu elkartetik Kostarratzura doan bidea itxita egongo da. Irailaren 22an hasi zituzten lanak eta, hamabost egunez, urriaren 6ra arte, astelehena, ez dute bidea zabalduko.

Gimnasia Erritmikoa

Urriaren 1ean hasiko da gimnasia erritmikako ikastaro berria 6 urtetik gorakoentzako. Klaseak astelehenetan, martitzenetan eta eguenetan izango dira arratsaldeko 4:30etatik 5:30etara. Izena eman nahi dutenek Arantxa Lizarralderi deitu 78-71-06 zenbakira edo Mireia Unamunori 78-70-68ra.

Intsumiso Eguna 97

Agurainen ospatuko den Intsumiso Eguna joateko autobusa jartzekotan da Antzuolako Intsumiso Taldekoa. Irteera Gaztetxean izango da, domekan, goizeko 10etan.

Marrakzi eta margo ikastaroa

Haur eta helduentzako izango da urritik ekainerarte. Izen emateko eskolan eta udaletxean urriaren 7a baino lehen. Klaseak arratsaldez eta hilean behin.

Irailak 27**Tortila lehiaketa**

Arzak, Argiñano... Egoitz, Irati, Oihana... zein da ezberdintasuna? Patata tortila bat gertatzeko ez dago profesionala izan beharrik, eta hori erakusteko zapatuan umeek patatak zuri-tu, arraultzak irabiatu eta zartagia sutan jarriko dute tortilak gertatzeko. 5. eta 6. mailako haurrek hartuko dute parte A taldean eta DBHko 1. eta 2. mailakoek B taldean. Arratsaldeko



A zelako tortilla goxua probatu zituen Polle-riak, Mikel-xok eta Aldamarrek 1995eko lehiaketan.

4:30etan hasiko dira elizpean sukaldaritza lanetan eta gutxienez 4 laguneko taldeak osatu beharko dituzte parte hartzeko. Osagaiak, taldekideen kontu.

Urriaren 20ra arte**Oporretako III. argazki lehiaketa**

Oporrak argazkiak ateratzeko aukera paregabea izaten da; hori dela eta Kultura eta Kirola batzordeak oporretako argazki lehiaketa antolatu du 3garren urtez. Lanak koloretan zein zuri-beltzean aurkeztu daitezke eta bi taldetan banatuko dira parte hartzaileak, 25 urte artekoak eta 25 urtetik gorakoak. Lau

sari banatuko dira irabazleen artean eta lanak udaletxean aurkezteko epea urriaren 20an amaituko da.

Azaroak 1**Umeentzako txotxongiloak**

Txotxongilo taldearen Errekamari antzezlanak ikusteko aukera izango dute 10-11 urte arteko haurrek azaroaren 1ean, zapatua. Txotxongilokoak zinean arituko dira arratsaldeko 6etatik aurrera umeen gozamenerako.

GURE ARTIAN

Beñardo Kortabarria
Kazetaria

Periodikuetan ipintzen eztaba irakurri nahiko Bizixa izen bihar kotilla papera eta, gainera, gure historixia, kaleko jendiana errekuperatzeko izan, beste medixotatik nahi bada.

igor eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA

☎ 76 60 39

BERGARA

☎ 76 19 98

**GOROSTI
Taberna**

☎ 76 62 96

Zurrategi Plaza ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apainketak eta isolamenduak
Pladurezko dibisioak

Kalegoi, 21 ANTZUOLA

Tf. 72 30 05

Biltegia 78 70 40

Pilota txapelketa martxan

Hirugarren Mundurako dirulaguntzak

Urriari hasiko da 2. urtez frontoi berrituan jokatu den Antzuolako pilota txapelketa. 19-20 bikotek hartuko dute parte aurten. Txapelketa taldeka jokatu da; aurkeztutako pareja kopuruaren arabera egingo dira taldeak, eta liga antzeko bat izango da abendura arte, finala Gabonak aldera izango baita.

Jose M^a Galeano eta Juan Miguel Pagaldai, iazko irabazleak, bertan izango dira, nahiz eta Joxe Marik dioenez, "aurten ez najak forman". Orain dela bi urte arte Olaldekoek egiten zituzten bikoteak, baina Valentin Zabalok dioen moduan "hobe izeten da parejak eginda



Iaz finalista izan zirenak.

egotia, ze lagun artian egiten dittue eta jendiak gustorao jokatzen dau".

Txantxikutarren aurka

Asteburuan Errejonaleko lehen taldea Oñatira joango da Aloñamendi taldearen aurka jokatzeko. Bestalde, jubenilek etxean jokatu dute Aretxabaletaren aurka.

Urriaren 15ean amaitzen da Hirugarren Mundurako lanean diharduten taldeek dirulaguntzak eskatzeko duten epea. Iaz herriko bi taldeek eskatu zituzten dirulaguntzak, Brasil eta Ruandarako hain zuzen ere. Aurten ere, udalak bere aurrekontuetan onartuta dauzkan dirulaguntza horien %30a jasotzeko aukera izango dute herriko taldeek, beste %70a Gobernu Kanpoko Erakundeentzako (GKE) aurreikusitako baitzen. Hauetako GKE batek amaitua dauka dirulaguntzarekin egin nahi zuen proiektua Salbadorreko herri batean.

Langabetuen zerrenda berriak egingo ditu gizarte laguntzaileak

Gizarte laguntzaileak lanik gabe daudenen datuak jasoko ditu datorren astetik aurrera. Orain darabilen zerrenda zaharrikua gelditu da eta herriko buzoietan banatu diren paperak bete beharko dituzte langabezia dauden antzuolarrak. Momentuan, INEMen datuen arabera, 60 langabetu daude herrian; hala ere Karmele Korta, gizarte laguntzaileak, 43 izen baino ez ditu bere zerrendan, hauetatik 32 emakume eta 11 gizonezko.

Kontuolaren aurkezpena datorren zapatuan

Idolaz euskara elkarrekin, Kontuolaren aurkezpena egingo du urriaren 4an udaletxean goizeko 11:30etan. Asmoen berri ematea eta taldeen eta herritarren aportazioak jasotzea da euskara elkarrekin nahia.

Gaztetxokorako begiralea

Astebukaeretan lan egingo lukeen begirale bat behar da. Interesatuok deitu 76 62 46ra (Jone) edota 76 36 61era (Nekane), urriaren 3a baino lehen.

Nirakurri nahi zenuke Kontuolan?



Diana Mujika Dendaria

Herrixan egondako Hazkenengo albistiak eta astian pasauko diran gauzak leitzia gustuko jaten. Lehengo istorixa zaharrak leitzia be gustauko jaten, ezta kizu zelako gauzak kontatzen dosten dendara etortzen dien zaharrek eta berbetan hasten dienian.



Montse Hernando Tabernaria

Antzuola hobeto Azagutzeko Kontuola beharrezkoa ikusten nuen eta horretan asmakizunak edo jokoak baliogarrak izan daitezke, jakina. Argazki zaharrak ere politak dira honelako aldizkari batean agertzeko.

Heapaindegia

Aureli Cot Velasco

Post

Edertze aretoa

Errekalde, 2
ANTZUOLA
Tf. 78 71 37



TXOMIN garajea

Mekanika orokorra

Lizarragako hiribidea, 8 ANTZUOLA
Tf. 78 70 77

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Moketak eta tapizatuak

Rafael Eizagirre

Batzuk joan eta beste batzuk etorri

Rafael Eizagirre du izena. 25 urte daromatza elizarendako lanean. Jende askorik ez duela ezagutzen esaten duen arren, berarengana joan garenean, kontu kontari ari zen andra-gizon kuadrila batekin. Bergarako San Pedro eliza erretore, Ordizian koadjutore eta Arama eta Altagakako parrokiako administrari izan da eta ikasketak Alemanian egin zituen.



Nolatan horrenbeste aldaketa?

Aldaketa ez dugu guk aukeratzen; goitik beharren balorazioa egiten dute eta gero eskaini egiten digute. Daniel Legorretara joan dela ikusiz eta Xabier Santa Marinatik Eibarrera eraman dutenez, bailaran bi apaiz gutxiagorekin gelditu gara eta berria bat bakarria ekarri dute; horrek beste banaketa bat egitea eskatzen du.

Ezberdintasunik somatu duzu hemen edo Bergaran egon?

Bai, noski; Bergaran apaiz laguntzailea naiz, eta ez daukat parrokiaren ardura nagusia. Hemen, erretore izendatu naute eta ardura nire esku gelditu da; han laguntzaileak gaizki egiten duena erretoreak konpon dezake; hemen, berriz, erretoreak gaizki egiten duena ba... horrela geldituko da, ez? Gainera, ni Bergaran ez naiz eliza nagusian ibili; domeketan joaten nintzen bai Labegaraierara, bai San Antoniora, eta ezberdina da meza nagusia eman edo ermita txiki batean eman.

Zer pentsatuko zenuke domekan eliza jendez gainezka aurkituz gero?

Lehenagoan Danielekin izan nintzen jende asko zegoela iruditu zitzaidan; gero esan zidaten normalean ez dela horrenbeste jende ikusten, baina

kasu horretan pentsatuko nuke -ez dakit oker edo zuzen- Antzuolan sinismenak sustrai handiak dituela, nahiz eta jakin gaurko mundua sinismenetik pixkat urrin dabilela.

Gazteei buruz ari al zara?

Gazteak, orokorrean, elizatik urrin xamar ikusten ditut azken urteotan; badirudi ulertu ezin bat badagoela. Gainera, belaunaldien arazoa ere badaukagu; aspaldi utzi genion gazte izateari eta gure jarrerak ez datoz bat gazteekin. Dena dela, horrek ez du esan nahi gaz-

■ ■ ■
**Aspaldi utzi genion
 gazte izateari eta
 gure jarrerak ez
 datoz bat gazteekin**
 ■ ■ ■



Rafael Eizagirre, Antzuolako abadea.

teenganako itxaropena galdu dugunik, gazteek zerbaitek merezi duela ikuste dutenean egiten dute. Gazteekin esparru amankomun bat topatzea litzateke nire bizitzan gauzarik pozgarrienetakoa, baina zaila dela uste dut.

Hala ere, monagiloak gazteak izaten dira; badakizu zenbat monagiloren laguntza izango duzun?

Momentuz ez, zeren horiek ere haundi egiten dira eta beste dei bat egingo dugu 4. mailakoen artean.

Danielek joan aurretik eman al zuzun inolako aholkurik?

Aholkuak baino gehiago, bere esperientziatik nire galderei erantzuteko prest egon da. Baina aspektu praktikoei buruz ari gara gehien bat, bestela ere nahiko galduta ibiltzen gara hasieran. Bakoitzak bere esperientziak barruan gordetzen ditu eta berak, despedidan esan zuenez, Antzuolak pozik bizitzeko aukera eman dio, eta ez dut uste guburuen denik.

Hobbyrik badaukazu?

Irakurtzea asko gustatzen zait, eta pilotan jokatzera ere bai, baina zaharitzen ari gara eta ez da lehengo moduan.

Eta, maniarik ba al duzu?

Beno, maniarik gabeko gizonik ba al dago? □

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

JAIONE

ARRAINDEGIA



Elizkale, 1 behea
Tf. 72 32 56
Zumarraga

Kalebarren, 10
Antzuola
Tf. 76 64 09

CAMBRIDGEEXAMINATIONS, CERTIFICATES & DIPLOMAS
ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGEUniversity of Cambridge
Local Examinations Syndicate
International Examinations**Matrikulak urriaren 1etik 9ra. Azterketak eta datak:**

FCE (First Certificate English) abenduaren 13an
 CAE (Cambridge Advanced English) abenduaren 11n
 CPE (Cambridge Proficiency English) abenduaren 10ean
 AZTERKETA GUZTIAK EIBARKO ARMERIA ESKOLAN IZANGO DIRA

Informazioa eta matrikulak:**DURANGO**

Compubit English Institute
 Zumalakarregi, 18
 Tf. 94-620 20 20

ELGOIBAR

Kensington School of
 English
 Pedro Muguruza, 8
 Tf. 74 02 36
 Key Ingeles akademia
 Bernardo Ezenarro, 5-3.a
 Tf. 74 30 44

EIBAR

Anglo-American
 Urki, 17-C
 Tf. 10 64 57
 Interidiomas
 Urtzaile kalea, 1
 Tf. 12 10 03
 Ukitze
 Juan Gisasola, 2
 Tf. 70 25 59
 Link Idiomas
 Juan Gisasola, 5-1.a
 Tf. 10 39 59

ARRASATE

Parlance
 Ferrerías, 11 behea
 Tf. 77 06 83
 Cim-Ahizke
 Araba, 4
 Tf. 71 20 55

ONDARROA

Howdy Academy
 Artibai, 18
 Tf. 94-613 43 26

BERGARA

Espolon School of English
 Ibargarai, 31
 Tf. 76 03 53

OÑATE


A & M School of English
 Lazarraga, 1
 Tf. 71 61 37
 Cim-Ahizke
 Olakua, 14
 Tf. 71 60 00

LEKEITIO

Link Idiomas
 Tf. 908 57 62 58

BITXIDENDA BERRIA BERGARAN!


Urruneko bitxiak inoiz baino gertuago

**MAYA**

ARTIZAUTZAZKO BITXIDENDA

ANBARRA - ZILARRA
JANTZIAK - OSAGARRIAKIRIZAR, 2 BEHEA
Tf. - F.: 943-76 09 75
BERGARA

Donostiako Zinemaldia dela eta, zein filmetako protagonista izan nahi zenuke?




Emiliano Garcia

Egia esaten badizuet, zinea ez zait gustatzen. Ez dut filme bat ere ikusi, ez zinean eta ezta telebistan ere.



Izaskun Iztueta

Ez zait titulorik bururatzen orain, baina gehienbat filme erromantikoak gustatzen zaizkit, *Pretty woman* adibidez.



Laura Otero

Zaila da bat aukeratzea, baina azkenaldian ikusi ditudanetatik *El primer caballero* asko gustatu zitzaidan. Birritan ikusi dut.



Juan Maria Iturbe

Aspaldian ikusitako bat, *La caza de las Montañas Rocosas*, Rock Hudson aktorearena. Ehizari buruzkoa da eta paraje zoragarriak agertzen dira. Bi bider ikusi dut.



Rafa Prieto

John Wayne aktorearen edozein, bakeroenak asko gustatzen zaizkit eta. Oraindik ere telebistan botatzen dituztenean, ez dut bat ere galtzen.



Marian Aldama

Oso zaila da, baina *Instinto basico* adibidez asko gustatu zitzaidan. Michael Douglas nire aktore faboritoenetakoa da.


GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA



Irizar, 2

☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Kabuzia

ARRAINDEGIA


Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62



San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - 55

BERGARA



Homo...

Egun, Mendebaldeko gizarteak duen arazo larrienetariko bat sortzen dituen zabor desberdina da. Zer egin zabor guzti hauekin? Gainera, batzuk oso arriskutsu eta kaltegarriak dira. Irtenbide egokiak bilatzen zaila da eta, maiz, hartzen diren bideak, geroak erakusten duenez, okerrak izaten dira. Benetan gizarte zaborgilea osatzen dugu munduko alde honetakook. Esate baterako, Euskal Herriko Elkarte Autonomoko biztanle bakoitzak, egunero, kilo bat zabor solido produzitzen du bere etxean. Denak batuta 600.000 tonelada edo zertxobait gehiago urtero. Hauek, gainera, hiriko hondakin solidoek osatzen dutena da, bakar-bakarrik (%7,4).

Egoera hau nahiko berria da. Azken finean, gizarte "kontsumistari" dagokion berezko ezaugarria dela esan daiteke.

Baina historian gauzak horrela izan dira beti? Arkeologoak harrিতuta geratzen dira ikusterakoan zein mehe izaten diren milaka urtetan zehar gizakiak okupatutako kobazuloetan osatu diren estratu edo geruzak. Euskal Herriko onena eta Europako onenetarikoak bezala kontsideratzen den Isturitzeko kobazuloak argituko digu esandakoa. Isturitzeko S. Martin kobazuloak milaka urtetan zehar (80.000 urte, gutxi gora-behera) pilaturiko historiaurreko giza presentziaren aztarnak gordetzen ditu. Ba, urte guzti horietan pilatutako hondakinek 2 metro eta zertxobait gehiagoko lodiera osatzen dute, bakarrik. Seguruena ez zuten arazo larri-girik izan bere zaborrekin.

Aipaturiko kobazuloan bizi izan ziren garai haietako gizakiak *Homo Sapiens* (jakintsua) *Neanderthalensis* eta *Homo Sapiens Sapiens* bezala bataiatuak izan dira. Prehistoriako beste gizaki zaharragoen aztarnak ere izen bereziak hartu dituzte: *Homo Erectus* (zutik ibiltzen zelako), *Homo Habilis* (trebea), e.a. Hemendik 3 mila edo 10 mila urtera, bizirik irauten baldin badu giza espezieak, zein izen jarriko ote diote gure zibilizazio zaborgilearen homoari bere aztarna super ugariak ikertzen dituzten arkeologoek? *Homo*..... Jar ezazu ongien deritzozun adjetiboa.

Xabier LARRAÑAGA



Tarantela eta Manhattan

Donostiako 45. Zinemaldiko filmeren baten izenburuak izan daitezke Tarantela eta Manhattan, baina ez dira. Aste honetan laburmetraia baterako gidoia proposatu nahi dut, gainera.

"Behin bazen, haren izena gogoan ez badut ere, baserri bat Euskal Herriko mendieren batean. Bertan bizi zen mutila mendian behera herriko jaietara zihoala, lanpara bati ostiko eman eta iratxo bat atera zitzaion bide ertzean, zera esanez: "Eskerrak lanpara zahar honetatik askatzeagatik. Mesedearen truke eskatu nahi duzuna, iratxoak haur eta gazteen lagunak gara eta zure hiru desio beteko ditut".

- Ez dakit dantzan, eta beti izan dut dantzan egiteko ilusioa.
- Lasai motel, une honetatik aurrera badakizu dantzan, edozein dantza egiteko gauza izango zara. Aupa! Egin bigarren eskaera.
- Herriko neskekin dantzan egin nahi dut.
- Gaur gauean, herriko neska eder guztiekin dantzan egiteko aukera izango duzu eta denekin egin arte ez da musikarik ixilduko- iratxoak.
- Ederrena etxera ekarri nahi dut.
- Zure desioa hori baldin bada, dantzan egin ondoren, guztietan jator eta politenarekin etxeratuko zara -eta iratxoa desagertu egin zen.

Pozik jarraitu zuen baserriarrak aldapan behera eta plazan trajez jantzitako 8-10 musikari eta soinean gona motzak zituzten bi kantari ikustean oraindik irrifarrea zuen ahoan. Baina laster joan ziren pikutara bere ilusioak; arrotz egin zitzaizkion Manhattan orkestakoen doinuak eta hizkuntza. Profesionaltasun haundiz jotzen zuten musika baina, saiatu arren, ordura arte bezala, dantza egiteko torpea zen.

Iratxoak ezin izan zuen esandakoa bete, mutilak ez zekien dantzan. Ordu haietan, San Martin plaza, edozein Plaza de España bihurtu zen. Amorriz ikusi zuen plazan iratxo euskaldunak ezin zituela desioak bete. Euskal Herriak era guztietako taldeak izanik, merkeagoak gainera... Gazteari emandako hitza bete nahi zuen. Baserriarantz triste zihoala euskal doinu bat entzun zuen; bide bazterrean iratxoa ikusi zuen eta atzerago, akelarrean, Alaitz, Maixa eta beste hainbat sorgin. Nahikoa dantza egin eta sorgin ederrenari saldu zion bihotza baserriararak"

Eta hau hola bazan, sartu dadila kalabazan eta irten dadila... izan dadila euskal musika herriko plazan.

Jon ALTUNA

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78



AZPEITXI

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-belztean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibaloi edota ziklismoko



BERGARA
kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorenzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

■ **Izarretatik gertu**

Edu Muruamendiaraz bergarar dantzaria, bigarren urtez jarraian, Donostiako Zinemaldira hurbiltzen diren izarretatik gertu daukagu. **Egunero arratsaldeko 7etan** eta gaueko 10etan Victoria Eugenia antzokian eskeintzen diren sekzio ofizialeko bi filmeen ostean ohorezko aureskua dantzaten die Muruamendiarazek zine zuzendari, produktore edota aktore ezagunei. Inaugurazio ekitaldian izan ziren agintari politikoen aurrean ere dantzatu zuen Eduk joan zen ostiralean. Oraingoz, Jeremy Ironsen sinpatia goraiatzan du, aktore ingelesari izugarri gustatu ei baitzitzaion bere omenez dantzatutako aureskua. Gaur, ostirala, Donostia Saria jasoko duen Michael Douglasen aurrean dantzatuko du, baina Edu penaz dago Julia Roberts azkenean Zinemaldira agertu ez delako...




■ **Kinto bazkaria**

1933 urtean jaiotako bergararrek ez dute hutsik egiten euren urteroko ospakizunarekin. **Joan zen domekan** berriz bildu ziren elkarrekin egun eder bat igarotzeko asmoz. Lehenbizi, eguerdian, hildakoen oroimenezko meza izan zuten Santa

Marinan eta jarraian bazkaria egin zuten Antxoni jatetxean. 33 lagun bildu ziren guztira eta, ohizkoa denez, primeran pasa zuten elkarrekin. Aurten 64 urte betetzen dituzten herritarrak sasoi ezin hobean ditugu. Eutsi horri!!

Argitapen honen edizioko laguntzaile:

 **kutxa**

fundazioa
fundación



■ **Iker Zabalaren omenezko mendi irteera**

Eguastenean bere heriotzaren lehen urteurrena betetzen zela eta, **Iker Zabalaren omenezko mendi irteera** antolatu

zuen domekan **Pol-Polek**. Ikerren lagunak autobusez Urkulura joan ziren eta handik ekin zioten mendi ibilaldiari; Orkatzategiraino heldu ondoren, **Araotzen** amaitu zuten mendi buelta. Omenaldiari amaiera emateko, Itxaso Mendizabalek San Elias ermitaren azpian lagunek Ikerri eskeinitako eskulturaren aurrean dantzatu zuten. Guztira, 100 bat lagun bildu ziren omenaldian.

■ **Irrati kontuak**

Urtero moduan, **Surra Irratizaleen Elkarteko kideek 24 orduko irradi kontaktuen lehiaketa** egin zuten joan zen zapatuan. Eguerdiko

12etatik domeka eguerdira bitartean ahalik eta kontaktu gehien lortzen saiatu ziren herriko irratizaleak, baina aurreko urteetan baino marka eskasagoa egin zuten oraingoan. Guztira, **800 kontaktu** egitea lortu zuten eta kontakturik **urrutiena italiar batekin** egindakoa izan zen. Badirudi irratizaleen afizioak behera egin duela eta hori dela eta kontaktuen kopuruak behera egin du aruten. Txanda ezberdinetan banaturik, Surra elkarteko **20 bat lagunek** hartu zuten parte azken edizio honetan.



Zertan dihardute ba?



Jose Mari Zezeaga

Uberako pilotariak fibra hausdura jasan zuen bere eskuin besoan Logroñoako San Mateo ferriako binakako txapelketaren aurrefinalian. Jokin Etxanizekin batera Titin eta Lasaren aurka jokatzen ari zela, Jose Mari lesionatu egin zen, markagailuan 5 eta 7 atzetik zeudenean. Zezeagak partiduan jarraitzeko ahalegina egin zuen baina 7 eta 9ko emaitzarekin kantxatik erretiratu behar izan zen. San Fermineko ferian ere antzeko lesio bat izan zuen Zezeagak. Azaroan hasiko den binakako txapelketarako errekuperatuta egongo dela espero da.

IGARO
 ✓ Kosmetika eta oparigaiak
 ✓ Eder gela
 ✓ Bio Solariuma
 Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

ZUBIETA
 elektragintza
 MOTORREN BOBINAKETA
 ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
 Kruz Gallastegi, 2 behea
 ☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
 PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
 Leihoak, atek, manparak...
 Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
 Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
 Tfnoa: 76 55 02 Faxe: 77 11 30

Edurne Zabaleta

Bergaran izaten diren xake eta atletismoko ia proba guztietan antolatzaile lanetan aritzen da Edurne Zabaleta. Xakeko epaile nazionala ere bada eta izugarri gustatzen zaio gaztetxoei xakean jokatzeko erakustea.

- Noiz ikasi zenuen xakean jokatzeko?

- Eskolan, 7 urterekin edo...

- Xakea, kirola ala jokoa?

- Kirol-zientzia. Estatikoa izan arren prestakuntza oso ona behar da.

- Zer kualidade behar dira ondo jokatzeko?

- Konstantzia, ikasteko gogoia, pazientzia eta buru argia.

- Oso azkarrak direnen kirola da?

- Topikoa da, baina egia ere bada...

- Zenbat ordu igarotzen dituzu egunero taula aurrean?

- Ahal izango banu 6 bat, baina ordu bete askotan...

- Zeinekin jokatzeko duzu normalean?

- Martin Mujikarekin, lagunarekin.

- Xakean jokatzeko momenturik onena?

- Gustatzen bazaizu, edozein ordu da ona.

- Xakea, ikusteko ala jokatzeko?

- Jokatzeko, duda barik.



“Xakea estatikoa izan arren, prestakuntza fisikoa haundia behar da jokatzeko. Kasparov ez zait gustatzen, harroputza da. Musika barrokoa entzutea gustatzen zait”

- Ordenadorez ala aurrez aurretik?
- Aurrez aurre.
- **Fitxa beltzak ala zuriak?**
- Beltzak nahiago.
- **Piezarik gustokoena?**
- Dama.
- **Defentsa ala eraso?**
- Atakea politagoa.
- **Partida azkarrak ala eperik gabekoak?**
- Azkarrak.
- **Zeinen kontra jokatzeko gustatuko litzaizuke?**
- Judith Polgaren kontra.
- **Polgar ala Kasparov?**
- Kasparov ez zait gustatzen, harroputza da.
- **Jokalaririk gustokoena?**
- Bobby Fischer (70eko hamarkadako).
- **Puntuatu Bergarako xakearen egoera.**
- Otik 10era 8.
- **Hobby bat?**
- Astronomia.
- **Zerura begira egoten zara?**
- Bai, etxean daukadan teleskopioarekin.
- **Beste kirolik?**
- Atletismoa.
- **Atletarik gustokoena?**
- Serguei Bubka.
- **Zelako musika atsegin zaizu?**
- Barrokoa.
- **Donostiako Zinemaldian egon zara?**
- Ez.
- **Udazkena gustoko duzu?**
- Bai, asko.

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE



LAGUN ARO

ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Iraegi Eguren

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxes: 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneretik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Bolun.
☎ 76 35 20.

Pisu amueblatua salgai
Osintxun. Prezio onean.
☎ 76 36 61 (arratsalde).

Pisu amueblatua salgai.
☎ 76 49 30 (gauze).

Pisu txiki bat alokairuan
hartuko nuke. ☎ 76 04 57.

Garajea alokairuan Ibar-
garain. ☎ 76 13 86 (gauze).

Garajea salgai Masterre-
kan. ☎ 76 24 57.

Garajea alokairuan Torre-
kuan. ☎ 76 30 32.

Etxea salgai Maduran.
☎ 76 29 08.

Garajea saldu edo aloka-
tzen da Santa Marinar.
☎ 76 47 27.

Garajea saldu edo alo-
katzen da San Lorentzon.
☎ 76 58 28.

Garaje bikoitza salgai
Torrekuan. ☎ 76 30 32.

Garajea alokairuan Burdi-
ñatan. 20m2. ☎ 76 40 03.

Pisua salgai Koldo Eleizal-
den. ☎ 76 23 84.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 42 65 (gauze).

Garajea salgai Bolun.
☎ 76 35 20.

Pisu bat alokairuan hartu-
ko nuke. ☎ 76 59 54.

DENETARIK

Vitus bizikleta salgai.
☎ 76 08 21.

Ford Orion kotxea (1.6 D)
salgai. ☎ 76 71 12.

Bi lagun behar dira Gas-
teizen pisua osatzeko.
☎ 76 28 17.

Matxiategin pisua osa-
tzeko lagun bat behar da.
☎ 76 30 01.

Renault 5 GT Turbo
kotxea salgai. ☎ 76 57 87.

Brillantedun brotxea
galdu dut jaietan Plaza
inguruan. ☎ 76 23 27.

Urrezko belarritakoa gal-
du dut anbulategia eta Zu-
bieta artean. ☎ 76 47 84.

Gasteizen pisua osa-
tzeko ikaslea behar da.
☎ 76 41 59 (Iñaki).

Windsurf egiteko taula
salgai. ☎ 76 47 71.

Aulki ergonomikoa opa-
ritzen dut. ☎ 76 08 92.

Tabernako makinan era-
biltzeko, duro berriak za-
harren truke. ☎ 76 20 07.

Arrantzako kainaberak
salgai. Matxiategi 29, le-
hen pisua ezkerre.

"Zero-sette" soinu txikia
salgai. ☎ (945) 27 44 26.

Butanozko berogailua
eta egurrezko kalefazio
galdara salgai. ☎ 74 41 28.

LANA

Matematika klaseak
ematen dira. ☎ 76 03 72.

Umea zaintzeko neska
euskalduna behar da.
☎ 76 34 52.

Haurrak zaindu eta etxeko
lanetarako emakume euskal-
duna behar da. ☎ 76 27 76.

Ingeles eta OHoko
klaseak. ☎ 76 22 95.

BBBko 2. mailako maisua
behar da. ☎ 76 53 57.

Lan egingo nuke zapatu
eta domeketan. ☎ 76 56 66.

Haurrak zainduko nituz-
ke. ☎ 76 04 34.

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Klinika auxiliarr batek
gaisoak edo helduak zain-
duko lituzke. ☎ 76 64 47.

OHoko 3. mailako klaseak
emateko majisteritzako ikas-
lea behar da. ☎ 76 15 76.

Haurra zaindu eta etxeko
lanetarako andre euskaldu-
na behar da. ☎ 76 57 93
(15:00-16:00).

Windows 95 (Word eta
Excel) programako irakas-
lea behar dut. ☎ 76 06 87.

Tabernaria behar da.
Esperientzia. ☎ 76 52 30.

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 23 67/76 22 90.

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**EGUREN
GESTORIA**

Maria Pilar Eguren Díez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta Plaza, 3 behea
☎ 76 21 65 / 76 24 45

**Aldoka
Maldoka****TABERNA**

Kruz Gallastegi BERGARA

LAZKANO**Oinetakoak**

Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

GURIDI altzariak**Era guztietako
altzariak**

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02



Mikel Gaztelurrutia &

Piano eta solfeo klaseak
(Goi mailako titulaziodun maisua)
Tf. 76 50 59

**YAZKI
UME GAZTE****Neska eta mutil**

Irizar, 3 Ibariari, 8
☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73



“Orain arte moldaketak egin ditugu, baina aurrerantzean abestiak sortu nahi ditugu”

“Baladak eta abesti melodioak gustatzen zaizkigu; baita Etsaiak moduko taldeak ere”

JOSUNE ETA EDURNE, KANTARIAK

“Ez daukagu lokalik eta kalean entsaiatzen dugu”

Musika munduan emakumezkoen bikoteek indartsu jo dute azkenaldian. Euskal Herri mailan, Alaitz eta Maider eta Maixa eta Itziar aurtengo udako izarrak izan dira; Ella Baila Sola bikoteak marka guztiak hautsi ditu estatuan... Maila apalagoan bada ere, Bergaran gero eta ezagunagoak dira Josune Aldai eta Edurne Hurtado (15 urte). Eurekin berba egin dugu.

- Noiztik elkarrekin?

- Iazko Gabonetatik. Ikastolako jaietan, San Jolgorion, egin genuen debuta. Josunek kitarra jotzen zuen etxean eta ea elkarrekin zerbait egingo genuen komentatu zidan. San Jolgorio eguneko jaialdiaren bezperan bildu ginen eta behin entsaiatu ostean taula gainera igo ginen. Bost abesti eskaini genituen. Harrezkero, hiruzpalau emanaldi egin ditugu: Korrika zela eta plazan, Antzuolako Gaztetxean, Aranzadi ikastolaren 25. urteurrenko jaialdian Benito Lertxundirekin frontoian...

- Zer moduz Benito Lertxundirekin?

- Gurekin oso hotz



“Gazteak izan arren, ilusioa ez zaio falta bikote honi”.

egon zen. Argazkia atera nahi genuen berarekin batera oholtzaren gainean, baina, antza denez, bera ez zegoen prest. Jaialdia bukatu zenean, etxerako bidean, elkar ikusi genuen eta argazkia atera genuen.

- Gustoko dituzue Benitoren kantuek?

- Lehengo ezagunak bai, baina berriak aspergari samarrak dira. Bestela, Anje Duhalde, baladak, abesti melodikoak eta Ella Baila Sola eta horrelakoak gustatzen zaizkigu.

- Niri (Josune) Su ta Gar, Etsaiak..., ere gustatzen zaizkit.

- Josunek kitarra jotzen du eta zuk, Edurne, abestu egiten duzu?

- Kitarra jotzeaz gain, berak beheko ahotsak ere egiten ditu eta nik goikoak. Abestiak aukeratu eta moldatu egiten ditugu, inoren laguntzarik barik.

- Josune zela hasi zinen kitarra jotzen?

- Etxean lagunekin; gero, Jardunek antolatutako kitarra ikastaroan ibili nintzen. Nire kabuz

ikasi dut gehiena.

- Zelako abestiak kantatzen dituzue?

- Orain arte moldaketak egin ditugu, “Lau teiatu”, “Itziarren semea”, e.a.; bestalde, lagun batek idatzitako bat ere kantatzen dugu. Gure errepertorioa 12 bat kantuz osatuta dago. Halere, gure asmoa abestiak sortzea da, geuk konposatzea. Udan hastekoak ginen, baina oporretan alper samar ibili gara, eguzkitan bai, baina.... Bestalde, arazo bat daukagu, entsaiatzeko tokiarena. Kalean entsaiatzen dugu. Ibargaraiko etxeen ostean, erreka ondoan, eta uda partean tira, baina neguan... Leku ezkutu samarretan entsaiatzen dugu, bestela diru eske gabiltzala pentsatuko dute jendeak. Udalera joan gara lokal eske, baina ez dagoela erantzun digute.

- Eta etxean, ezin dezakezue entsaiatu?

- Nik (Josune) kitarra jotzen dut etxean, baina kantuan hasten bagara etxetik botako gaituzte. Gure musika oso zalaparratsua izan ez arren zarata ateratzen dugulako eta ondokoak molestatu ditzakegulako.

Lehen maila

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. PAGOMENDI	3	1	12	0
2. MONGATXURRA	3	1	7	1
3. AZPEITXI JATETXEA	3	1	3	0
4. JAUJA OH ZEREZOS	3	1	3	0
5. BAR CANALEJAS	3	1	3	2
6. ERROTAGAIN	1	1	2	2
7. ETXAGI	1	1	2	2
8. A ZE FLAXA ETXAGI	0	1	2	3
9. ORTZI	0	1	0	3
10. ARLOTEAK/OILAGORRA	0	1	0	3
11. BILDURBAREK OPEL/LAM	0	1	1	7
12. AGINASPI	0	1	0	12

A multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. EZINLEIKE	3	1	11	3
2. MANITOU	3	1	7	0
3. GANBARA	3	1	7	3
4. AGIRREBEÑA JATETXEA	3	1	3	2
5. MRW	3	1	4	3
6. ALDOKA MALDOKA	1	1	1	1
7. MOSKIS	1	1	1	1
8. SHAKTALE	0	1	3	4
9. INDARGORRI	0	1	2	3
10. KAIXO	0	1	3	7
11. POLIDEPORTIVO TABERNA	0	1	0	7
12. IGANDEKOAK	0	1	3	11

B multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. PATXARAN TEAM	3	1	9	2
2. ARTUSAMAK	3	1	7	1
3. AUTOBEREZI	3	1	6	0
4. SLO	3	1	3	0
5. ERDIBITERRAK	3	1	4	2
6. UVE BIKOITZA JAM	0	1	2	4
7. AMILOTX	0	1	0	3
8. BAYER	0	1	0	6
9. TXIPIRON	0	1	1	7
10. AMOZKIBAR	0	1	2	9
11. USOA	0	0	0	0

C multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. UFALA	3	1	6	2
2. GUADALEST	3	1	5	2
3. NEKROFLIKOS	3	1	5	2
4. FAC	3	1	3	1
5. ERI SIRIMIRI	1	1	2	2
6. ETENGABE	1	1	2	2
7. LA JUVE	0	1	1	3
8. LA PEÑA DML	0	1	3	5
9. MATXAKATEGI	0	1	2	5
10. PATATUS	0	1	2	6
11. KOMANDO PIPERRAK	0	0	0	0

Jokoz kanpo



Asier Lenisoro

ALDOKA MALDOKA

ZER MODUZ HASI DUZUE TXAPELKETA?

5. urtea dugu txapelketan eta inoiz baino hobeto hasi gara lehenengo partiduan berdinketa lortu baitugu.

IAZ AZKENENGO GERATU ONDOREN, AURTEN ZER HELBURUREKIN HASI DUZUE TXAPELKETA?

Jaso fitxatu dugu eta berak sartu du taldearen gol bakarra.

AURREDENBORALDIRIK EGIN DUZUE?

Bai, "sofing" (sofan etzanda egon) eta parranda ugari egin ditugu.

TXAPELKETAREN SISTEMA BERRIA GUSTATZEN ZAIZU?

Ez dakit, joan zen urtean ez genuen ia partidurik irabazi eta ea aurtan gehiago irabazten ditugun!

KANPOAN EURIAREKIN JOKATU ZENUTEN ETA ZER MODUZ?

Iaz baino hobeto, orain ez da horrenbeste labantzen.

TXAPELKETA IRABAZTEKO FAVORITOA?

Manitou.

LIGA PROFESIONALEKO TALDERIK ONENA?

Realzale amorratua naiz.

GUSTOKO JOKALARIRIK?

Agustin Aranzabal.

ZUEN TALDEKO JOKALARIRIK ONENA?

Iñigo Ramirez "Rami". Korrika gehien egiten duena da, besteok nahiko erreta gaude eta.

AURTEN ERE AZKENAK?

Ez dut uste. Halere, talde guztiak hohera doaz eta gu, alderantziz, txarrera.

EMAITZAK

A ZE FLAXA ETXAGI-BAR CANALEJAS	2-3
ERROTAGAIN-ETXAGI	2-2
AGINASPI-PAGOMENDI	0-12
AZPEITXI JATETXEA-ARLOTEAK/OILAGORRA	3-0
BILDURBAREK OPEL/LAM-MONGATXURRAK	1-7
ORTZI-JAUJA OH ZEREZOS	0-3
ALDOKA MALDOKA-MOSKIS	1-1
MRW-SHAKTALE	4-3
EZINLEIKE-IGANDEKOAK	11-3
AGIRREBEÑA JATETXEA-INDARGORRI	3-2
MANITOU-POLIDEPORTIVO TABERNA	7-0
ARI ARI GANBARA-KAIXO	7-3
SLO-AMILOTX	3-0
PATXARAN TEAM-AMOZKIBAR	9-2
ARTUSAMAK-TXIPIRON	7-1
AUTOBEREZI-BAYER	6-0
ERDIBITERRAK-UVE BIKOITZA JAM	4-2
GUADALEST-MATXAKATEGI	5-2
LA JUVE-FAC	1-3
ERI SIRIMIRI-ETENGABE	2-2
NEKROFLIKOS-LA PEÑA DML	5-3
UFALA-PATATUS	6-2

PARTIDUAK

Zapatuan kanpoan

11:00: AMILOTX-AUTOBEREZI • MOSKIS

12:00: MOSKIS-MANITOU • AMILOTX

Domekan barruan

09:00: TXIPIRON-ERDIBITERRAK • BAYER

10:00: BAYER-PATXARAN TEAM • UVE BIKOITZA JAM

11:00: UVE BIKOITZA JAM-SLO • USOA

12:00: USOA-ARTUSAMAK • FAC

13:00: FAC-GUADALEST • ARTUSAMAK

16:00: ETENGABE-LA JUVE • ERI SIRIMIRI

17:00: LA PEÑA DML-ERI SIRIMIRI • PATATUS

18:00: PATATUS-NEKROFLIKOS • EZINLEIKE

19:00: KAIXO-EZINLEIKE • INDARGORRI

20:00: INDARGORRI-GANBARA ARI ARI • KAIXO

Domekan kanpoan

09:00: BAR CANALEJAS-ORTZI • ERROTAGAIN

10:00: PAGOMENDI-ERROTAGAIN • ETXAGI

11:00: ETXAGI-A ZE FLAXA ETXAGI • MONGATXURRAK

12:00: MONGATXURRAK-AZPEITXI JATETXEA • BILDURBAREK

13:00: JAUJA OH ZEREZOS-BILDURBAREK • AZPEITXI

16:00: ARLOTEAK/OILAGORRA-AGINASPI • SHAKTALE

17:00: SHAKTALE-ALDOKA MALDOKA • IGANDEKOAK

18:00: IGANDEKOAK-MRW • POLIDEPORTIVO TABERNA

19:00: POLIDEPORTIVO TABERNA-AGIRREBEÑA • MRW

TXINPARTAK

Lagunak taldearen debuta futbitoan

Bergarako Lagunak futbito taldeak gaur hasiko du denboraldia Gure Txokoa talde nafarraren aurka 22:15etan Labegaraieta kiroldegian. Jakingo duzuen moduan, Lagunak elkarteak futbito talde federatua atera du aurtan eta Gipuzkoako 2. maila probintzian arituko da. Taldearen gastuei aurre egiteko Lagunak elkarteak 500 pezetako bono laguntzak atera ditu. Jose Romerok eta Mikel Fernandezek zuzenduko dute taldea. Azken honek zera esan digu: *"talde oso ona atera dugu eta Labegaraietara joango direnek partidu politik ikusteko aukera izango dute"*.

Ander Muguruza finalera Berrizeko pilota txapelketan

Ander Muguruza kadete mailako pilotari bergararrak Berrizeko lau eta erdiko txapelketaren finala jokatu du gaur, eguakitzan, 22:00etatik aurrera. Muguruzak partidu bikainak jokatu ditu eta 4 kanporaketa pasatu ondoren, finalerdian Elgetako torneoko finalerdietako bat jokatu zuen pilotaria kanporatu zuen. Ea txapela ekartzen duen.

Ikasturte berriko Eskola kirolaren eskaintza kalean

Udal Kirol Zerbitzuak 1997-98 denboraldirako eskola kirolaren eskaintza atera du. Bertan herriko eskoletan matrikulaturik dauden haurrek parte hartu ahal izango dute eta adinaren arabera hainbat kirol mota egiteko aukera izango dute.

1990-91n jaiotako haurrek multikirola, aurrekirola eta kiroletarako presetakuntza egiteko aukera izango dute. 1986tik 1989ra bitartean jaiotako haurrek, berriz, eskubaloia, futbola, saskibaloia, atletismoa, badmintona, pilota, xakea edo beste kirolen bat egiteko aukera izango dute. Izan ere, adin hauetan haurrek kirol guztiak egin beharko dituzte eta urteko kuota 3.000 PTAKoa da. 1984-85ean jaiotakoek aurrekoen kirol aukera berbera dute.

Halere, kirol bat edo bi aukeratu ahal izango dituzte. Futbola aukeratuz



Era askotako kirola egiteko aukera dago Eskola Kirola kanpianan.

gero, derrigorrez bigarren kirol bat aukeratu beharko da.

Era berean, bi kirol aukeratzekotan, bat bana-koa eta bestea taldekakoa izan beharko da. Urteko kuota, 3.000 pezetakoa da tenisekoa izan ezik, kirol hori egiteagatik hileroko 3.000 pezeta ordaindu beharko baitira. 1980tik 1983ra bitartean jaiotakoek, areto futbola egiteko aukera izango dute.

Eskola kirola kanpianan Udal Kirol Zerbitzuak gain, Zaleak atletismo taldeak, Bergara Igeri Elkar-teak, BKEk, Xake taldeak, Badminton taldeak, Lokatzak, Beti Bustik eta Ariznoa gimnasia erritmi-ko taldeak ere parte hartzen dute.

Orduetegi edo beste edozer guzari buruzko informazioa Udal Kirol Zerbitzuan edo ikastetxe-etan bertan jaso daiteke.

**Saskibaloia taldearen debuta**

Lehenengo maila territorialeko BKE-Bolsos Bergara saskibaloia taldeak San Cernin talde iruñearraren aurka debutatuko du bihar, zapatuan, 19:30etan Labegaraieta kiroldegian. Ramon Condek entrenatzen duen taldea itxaropentsu dago aurtengo denboraldian paper ona egiteko. Izan ere, iazko jokalariek guztiak jarraitzen dute eta, gainera, Arrasaten zebilen Igor Urisabel bergararra fitxatu dute. BKEko talde nagusiak Hego Euskal Herriko eta Errioxako taldeen aurka neurtu beharko ditu indarrak. Entrenatzaileak adierazi digunez: *"aurredenboraldian bi partidu jokatu ditugu eta maila ona erakutsi dugu. Arerioak ez ditut ezagutzen, baina uste dut mailari eutsiko diogula"*.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ **Bergara-Urola**

Lehen erregionala.
Zapatua. 17:00.
Agorrosin futbol zelaia.

◆ **Bergara-Real Union**

Lehen mailako infantila.
Zapatua. 11:30.

◆ **Bergara-Ilintxa**

2. mailako jubenila.
Domeka. 11:30.

◆ **Bergara-Aloña Mendi**

Lehen mailako kadetea.
Domeka. 10:00.
Ipintza futbol zelaia.

FUTBITOA

◆ **Lagunak-Gure Txokoa**

2. maila probintziala.
Eguakitza. 22:15.
Labegaraieta kiroldegia.

SASKIBALOIA

◆ **Bergara-San Cernin**

Lehen territoriala.
Zapatua. 19:00.
Labegaraieta kiroldegia.

PILOTA

◆ **Bergara-Zumarraga**

Gipuzkoako talde artekoa.
Jubenil maila.
Eguakitza. 17:00.
Antzuolako pilotalekua.

◆ **Bergara-Oskarbi**

Gipuzkoako talde artekoa.
Junior maila.
Eguakitza. 17:00.
Antzuolako pilotalekua.

Pako Santiago

Realeko jubeniletan

Pako Santiago 16 urteko futbolariak hirugarren urtea beteko du aurten Realean. Bi urte kadete mailan aritu ondoren, aurten bigarren mailako jubenil taldean jokatzen du. Aurtengo denboraldirako dituen asmoei buruz berba egin dugu aurrelari bergarrarekin.

- Zer moduz Realean?

- Ondo, kadete mailan bi denboraldi jokatu ditut eta 44 gol sartu ditut.

- Zela hasi duzu denboraldia?

- Nahiko gaizki entrenatzailearekin arazoak izan ditut eta. Bi partidu jokatu ditugu eta ordu erdi bakarrik jokatu dut. Lehenengo partiduan ez ninduten konbokatu eta bigarrenean ordu erdi bakarrik jokatu dut. Halere, entrenatzailearekin izandako hika-mikak ahaztu eta arazoak konpondu ditugu. Ea orain gehiago jokatzen dudan.

- Zenbatero entrenatzen duzue?

- Astean lau egunetan ordu eta erdiko entrenamendu saioak egiten ditugu. Egunero Bergaratik Zubietaraino joaten gara entrenatzera.

- Taldean konpetentzia handia duzue?

- Bai, 5 aurrelari gaudete eta bi bakarrik sartzen gara hamaikakoetan. Oso zaila da jokatzea, baina taldekideen artean oso ondo konpontzen gara.

- Zer helburu duzu aurtengo denboraldirako?

- Gehiago jokatu eta datorren urtean Realean jarraitzea.

- Realean jokatzea konpromezu handia da?

- Ez gaude derrigorrez irabaztera behartuta. Partiduetan ondo portatzeko eskatzen digute, keinu zatarrik ez egiteko, isilik egoteko, epaileari protestarik ez egiteko eta horrelakoak. Arerioak, berriz, gure aurka jokatzen dutenean gehiago saiatzen dira, gogorrago jokatzen dute, eta oso zaila izaten da partiduak irabaztea.

- Aurrean zer postutan jokatzen duzu gutxi?

- Horri ez diot garrantzirik ematen. Golak sartzea da gehien gustatzen zaidana.

- Realeko onena?

- Gica Craioveanu.

- Zubietan talde nagusiko jokalariekin izaten zarete?

- Ez, zelai desberdinetan entrenatzen gara eta okasio berezietan ikusten ditugu bakarrik.

- BK Eren aurka jokatuz duzu inoiz?

- Orain dela bi urte eta garaipenaren gola sartu nuen.

- Atzerritarren alde?

- Atzerritar gehiegi daude eta bertako jokalarientzat toki gutxi dago.



"Atzerritar gehiegi dago eta bertako jokalarientzat aukera gutxi"

“Aurrelaria izanik golak sartzea da gehien gustatzen zaidana”



Argazkia: Eduardo Muruamendiarrak

Elementaleko irakasleak futbolean

Hori ekipoa hori!! Egunotan hainbeste gorai patzen den izarren ligan parte hartze-ko moduko futbol taldea duzue goikoa. Bueno, orain 25 urte ziurrenik gaur egun baino sasoi hobean izango ziren... Goian agertzen diren guztiak Lantegi Eskolako (gaurko Miguel Altuna Institutua) irakasleak genituen eta oraindik ere zenbait bertan jarraitzen dute lanean.

Argazkia San Juan Boscoren omenez eskolan egiten den jaiegunean aterata dago. Orduan ere Seminarioan ikasle eta irakasleen arteko futbol partida jokatzeko ohitura zegoen eta ez dakigu gazteen indarra ala goikoen betetaria nagusituko zen orduan. Argazkia, esan bezala, duela 25 bat urte aterata dago eta argazkian agertzen direnak hauek dituzue, ezkerretik eskumara:

Zutik: Miguel Angel Fernandez, Jose Luis Moreno, Alfonso Romera, Juan Mari Alberdi eta Jose Luis Garitano.

Makurtuta: Jose Ramon Arakistain, Antonio Otaola, Eduardo Muruamendiarrak eta Jose Ramon Sasigain.

**Iker
Zabala**



Negar egin genuen egun hartan, egun lainotsua bera ez genuen jakin izan zureganako sentimendua ongi adierazten. Orain, ordea, zeru eguzkitsu honek bazter guztiak argitzen dituen momentu honetan,

ez daukagu ezer adierazi beharrik. Zure irrifarre alaiez oroitzu gure hamaika negar malko hamaika irrifarre sakonetan murgiltzen baitira gure ahoak ixilaraziz.



Ikaskideak, zure heriotzaren lehen urteurrenean

MAPFRE

MAPFREK DISEINU
ESKLUSIBOKO
ZIKLISTA EKIPOA
OPARITZEN DIZU



DOAN

Zure autoaren aseguru
hauetako edozein poliza
kontratatzearren

Maillota
Trebol
poliza

Maillota
10 s
poliza

Maillota
Lider
poliza

Maillota
*Todo
Riesgo*
poliza

Maillota
*Todo
Riesgo 100*
poliza

1997ko
urriaren 31ra
arte du balioa
eskaintza honek

Asegura ezazu zure autoa **MAPFRE**

Simon Arrieta 3, Bergara
☎ 76 28 79 / 76 18 80



ARBA

SUKALDE ETA
DEKORAZIO
PROIEKTUAK

Juanita Arana
Mondragones kalea, 9 (azoka gainean) • ARRASATE
Tf./ Faxe: 77 07 50

Hasieratik kalitatea



Eskualdeko Miele banatzaile bakarra

IREKI BERRIA

Miele

SUKALDEAK eta ELEKTRATRESNAK

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR



Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak:
San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga, 10 behea.
Telefonoa: 76 03 30. Faxa: 76 02 91